

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

403

5/2023 EBAZPENA, urtarrilaren 17koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Tuvisa –Vitoria-Gasteizko Hiri Garraioak SA– sozietatearekin sinatutako hitzarmena, Vitoria-Gasteizko udalerrian garraio-datu aurreratuak sortzeko, Europar Batasunak finantzatutako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan – Next Generation EU.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak sinatu du hitzarmen hori, eta behar bezalako publikitatea emateko asmoz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Tuvisa –Vitoria-Gasteizko Hiri Garraioak SA– sozietatearekin sinatutako hitzarmena, Vitoria-Gasteizko udalerrian garraio-datu aurreratuak sortzekoa, Europar Batasunak finantzatutako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan - Next Generation EU. Hitzarmen hori ebazpen honen eranskin gisa agertzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 17a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

2023ko urtarrilaren 25a, asteazkena

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN URTARRILAREN 17KO 5/2023 EBAZPENARENA

HITZARMENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA TUVISA –GASTEIZKO HIRI GARRAIOA S.A.– SOZIETATEAREN ARTEKOA, GASTEIZKO UDALERRIAN GARRAIO-DATU AURRERATUAK SORTZEKO, EUROPAR BATASUNAK NEXT GENERATION EU FUNTSEN BIDEZ FINANTZATUTAKO SUSPERTZE-, ERALDATZE- ETA ERRESILIENTZIA-PLANAREN ESPARRUAN

Vitoria-Gasteizen, 2022ko abenduaren 14an.

BILDU DIRA:

Alde batetik, Ignacio Maria Arriola Lopez jauna, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ordezkari gisa, zeinak hitzarmen hau sinatzeko baimena jaso baitu Gobernu Kontseiluaren 2022ko urriaren 25eko Erabakiaren bidez.

Eta bestetik, Raimundo Ruiz de Escudero Ezcurra jauna, Tuvisa –Gasteizko Hiri Garraioa SA–sozietateko presidentea, haren ordezkari gisa.

Esku hartzen duten guztiek aitortzen diote elkarri HITZARMEN hau egiteko lege-gaitasuna, eta, xede horretarako,

AZALTZEN DUTE:

I.– Euskal Herrirako Autonomia Estatutuaren 10.32 artikulua arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko dagokio, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko trenbideko, lehorreko, itsasoko ibaietako eta kable bidezko garraioaren eta portu, heliportu, aireportu eta meteorologia-zerbitzuaren arloko eskumen eskusiboa, horrek Konstituzioaren 149.1.20 artikuluan xedaturikoa ezertan galarazi gabe. Garraio-gaietan, zama-kontrataguneak eta –terminalak.

Arlo horietan Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoak diren funtzioak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 11. artikulua eman dizkio Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari, bai eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuak ere.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren funtzioen artean, bere eskumenekoak diren eremuekin lotutako sektore ezberdinak laguntzeko politika aurrera eramatea dago, eta adierazitako sail horri esleitutako ahalmenetako bat Euskal Autonomia Erkidegoan bidaiarien garraioa planifikatzea eta antolatzea da, aipatutako 11/2021 Dekretuaren 15.2 artikulua d) atalean agertzen den bezala.

II.– Gasteizko Hiri Garraioen Konpainia (Tuvisa) Vitoria-Gasteizko udalerrian hiri-autobusen garraioa kudeatzeko eginkizuna duen udal-enpresa da.

Sozietatearen xedea da, besteak beste, Vitoria-Gasteizko Udalak bere jardun-eremuaren barruan agintzen dizkion bidaiarien garraio-zerbitzuak kudeatzea eta ustiatzea, bai eta Vitoria-Gasteizko udalerriko bidaiarien hiri-garraio kolektiboko zerbitzua kudeatzea eta ustiatzea ere, autobusen bidez.

III.– 2020ko abenduaren 31n 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, argitaratu zen, zeinaren bidez onartzen baitira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko presako neurriak.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamendua betez (2021eko otsailaren 12koa, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (MRR) ezartzen duena), Ministro Kontseiluak, 2021eko apirilaren 27ko bileran, Espainiako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana (PRTR) onartu zuen. Plan horrek 2021-2024ko aldian abiaraziko diren proiektuetan jartzen du arretagunea, ekonomiaren suspertze eta eraldatze azkarrean haien eragina ahalik eta handiena izan dadin. Europako Batzordeak planaren aldeko ebaluazioa egin zuen 2021eko ekainaren 16an, eta Europako Kontseiluak 2021eko uztailaren 13an onartu zuen.

Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren jarraibideen ildotik, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planak honako hauek jasotzen ditu, besteak beste: 1. osagaia «Hiri- eta metro-poli-inguruneetako mugikortasun jasangarri, seguru eta konektaturako talka-plana» eta 6. osagaia «Mugikortasun jasangarria, segurua eta konektatua». Ildo horretan, 2021eko azaroaren 5ean egindako Garraioen Konferentzia Nazionalaren bilkuran, Garraioen Konferentzia Nazionalaren Erabaki bat onartu zen, zeinaren bidez 2021eko eta 2022ko ekitaldietako aurrekontu-kredituen lurralde-banaketarako irizpideak ezartzen baitira, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 1. eta 6. osagaien esparruan inbertsio-jarduketak finantzatzeko.

Erabaki horren II. eranskinaren 5. atalak xedatzen duenez, «finantzaketa-lerro horien onuradunak autonomia-erkidegoak eta Ceuta eta Melilla hiriak dira, erabaki honen II. eranskinean jasotakoaren arabera, baina azken hartzaileak erakunde publikoak edo beste administrazio batzuk izan daitezke, baldin eta hala formalizatzen bada dagozkien hitzarmenen edo bestelako tresna juridikoen bidez. Nolanahi ere, azken onuradunek garatu beharreko neurriek aurreikusitako helburuak lortzen laguntzen dutela eta adierazleen balioa zehazteko beharrezkoa den informazioa ematen dutela bermatzeko mekanismoak ezarri beharko dira. Hirugarrenentzako finantzaketa lortu nahi diren helburuak lortzearekin lotu behar da».

Era berean, erabaki horrek C6I4-CCAA inbertsio-lerroa barne hartzen du. Lerro horren helburua zera da: autonomia-erkidegoko eta tokiko eremuan bidaiarien eta salgaien garraio-zerbitzuak digitalizatzeko jarduerak garatzea, bai eta autonomia-erkidegoek eta Ceuta eta Melilla hiriek beren eskumeneko errepide edo trenbideko salgaien eta bidaiarien garraioari dagokionez ematen dituzten administrazio-zerbitzuak digitalizatzeko jarduerak ere. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 6. osagaiaren (Mugikortasun jasangarria, segurua eta konektatua) 4. inbertsioaren (Garraio jasangarri eta digitalerako laguntza-programa) aurreikusitako 15. neurriaren zati bat garatzeko egiten da helburu hori.

Erabakiaren III. eranskinean ezarritakoaren arabera, EAERI dagokion C6I4-CCAA inbertsio-lerroaren kargura finantzatuko den jarduketa «EAERI garraio publikoa digitalizatzea» da, eta horren barruan sartzen da hitzarmen honen xedea, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren eraldaketa digitalaren helburua lortzen laguntzeko.

IV.– Hitzarmen honek honako hauetan araututakoari jarraituko dio: HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duena, eta HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, zeinaren bidez Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko entitateek informazioa emateko prozedura eta formatua ezartzen diren, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren osagaietako neurrien mugarri eta helburuen betetze-mailaren eta aurrekontu- eta kontabilitate-betearazpenaren jarraipena egiteko.

V.– HFP/1030/2021 Aginduaren 6. artikuluan xedatutakoa betez, 2022ko martxoaren 29an onartu zen Eusko Jaurlaritzaren Iruzuraren aurkako Neurrien Plana, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore

publiko osoari aplikatzekoa, bai eta Eusko Jaurlaritzaren bidez Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa finantzatzeko funtsak jasotzen dituzten foru- eta toki-sektore publikoko administrazio eta erakundeei aplikatzekoa ere. Era berean, plan horrek aplikagarritasun zuzena edo egokitua hedatu ahal izango dio borondatez hala erabakitzen duen edozein erakunde betearazle eta/edo kudeatzaileari.

VI.– Era berean, honako hauetan xedatutakoa hartuko da kontuan: 11/2021 Legea, abenduaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2022. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen, zehazki II. tituluko V. kapituluaren ezarritakoa (Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako funtsak kudeatzea), bai eta Gobernu Kontseiluaren 2022ko otsailaren 8ko Erabakian ezarritakoa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako jarduketaren eta proiektuen aurrekontu- eta kontabilitate-betearazteari, kudeaketari eta jarraipenari dagokienez.

VII.– Tartean dauden alde guztiek lortu nahi diren xedeak lortzeko interes berberak dituztela aintzat hartuta, hitzarmen hau sinatzea erabaki dute sinatzaileek, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoaren babespean, honako hauen arabera:

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen xedea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Tuvisa sozietateak Vitoria-Gasteizko udalerrian garraio-datu aurreratuak sortzeko konpromisoa hartzeko baldintzak arautzea da, bertako klausuletan jasotako baldintzetan.

Bigarrena.– Tuvisa sozietatearen konpromisoak.

1.– Vitoria-Gasteizko udalerrian garraio-datu aurreratuak sortzeari buruzko proiektua egitea.

2.– Vitoria-Gasteizko udalerrian garraio-datu aurreratuak sortzeko behar diren jarduerak bere kontura egitea. Lan horiek honako jarduketak hauek behar dituzte:

– Tuvisa sozietateari lotutako garraio-sareen datuen GTFS (estatikoak) eta GTFS-RT (denbora erreala) fitxategiak sortzea, I. eranskinean xedatutakoaren arabera.

– Datuak NeTEX (estatikoak) eta SIRI (denbora erreala) formatuan bihurtzea.

– Garraio-sareetako datuak eguneratzeko eta eraldatzeko prozesuak automatizatzea, haien kalitatea eta jarraitutasuna ziurtatzea eta ahalik eta informazio osatuena eta zehatzena eskaintzea.

– Moveuskadirekin datuak trukatzeko eredu bat ezartzea, fitxategiak Moveuskadi plataformaren bidez eskuragarri diren Tuvisa sozietatearen HTTP edo FTP zerbitzarian argitaratuz, edo fitxategiak Moveuskadiko FTPn argitaratuz.

Guztira, Vitoria-Gasteizko udalerrian garraio-datu aurreratuak sortzeko egin beharreko lanen kostua 31.866,25 eurokoa da (BEZa kanpo).

3.– Honako mugarri eta helburu hauek betetzea:

– Aurreko klausulan aipatutako datu estatikoak eman direla justifikatzea 2022ko abenduaren 31rako.

– Aurreko klausulan aipatutako datu dinamikoak (denbora erreala) eman direla justifikatzea 2023ko martxoaren 1erako.

4.– Justifikazio-txosten hauek aurkeztea, egindako gastuaren bilakaera eta mugarriak eta helburuak bete direla egiaztatzeko:

– Mugarri eta helburuen betetze-mailaren eta aurrekontu- eta kontabilitate-betearazpenaren jarraipenari buruzko justifikazio-txostenak. Hilero neurtuko dituzte jarraipen-adierazle hauek:

- Lizitatutako aurrekontua.
- Esleitutako aurrekontua.
- Egikaritutako aurrekontua.
- Amaitutako proiektuen kopurua.

Txosten horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari emango zaizkio urte bakoitzeko uztailaren 10a eta urtarrilaren 10a baino lehen, organo horrek horretarako emandako dituen jarraibideen arabera.

– Hiru hilez behingo aurreikuspenen txostenak. Horietan, aurrerapen-maila eta hurrengo bederatz hilabeteetarako aurreikuspenak jasoko dira, hiru hilekoen arabera egituratuta. Ez betetzeko balizko arriskuak eta plangintzarekiko desbideratzeak identifikatuko dira. Horrez gain, arriskuak arintzeko prebentzio- edo zuzenketa-ekintzak planteatuko dira, helburuak eta adierazleak onartutako egutegian eta baldintzekin betetzeari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak emandako jarraibideen arabera.

5.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari informazioa eta kontuak emateko betebeharra, eta honako hauek betetzen direla ziurtatzea:

– Adierazleei buruzko informazioa aldizka emateko eta argitaratzeko baldintzak, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak ezarritako kondizioetan, estatuko eta Europako Erkidegoko araudiarekin bat etorritik.

– Proiektu eta neurrietan, zenbatetsitako kostuaren aldean, gauzatutako gastuari buruzko informazioa aldizka emateko eta argitaratzeko baldintzak, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak estatuko eta Europako Erkidegoko araudiarekin bat etorritik ezarritako baldintzetan.

– Adierazleen neurketari eta dokumentazio euskarriaren kontserbazioari buruzko auditoriza-pista egokia mantentzea, Europar Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu beharreko finantza-arauei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 Erregelamenduko (EB, Euratom) 132. artikuluan xedatutakoaren arabera. Horretarako, erregistro bat mantenduko da eta egiaztagiria, datu estatistikoak eta finantzaketari buruzko gainerako agiriak gordeko dira, bai eta formatu elektronikoko erregistroak eta dokumentuak ere, bost urteko epean saldoa ordaintzen denetik edo, ordainketarik ez badago, eragiketa egin denetik. Era berean, erregistroak eta dokumentuak gorde egingo dira, bai jatorrizkoak, bai jatorrizkoen kopia konpultsatuak, bai eskuarki onartutako datu-euskarriak, horien artean jatorrizko dokumentuen bertsio elektronikoak edo bertsio elektronikoan soilik dauden dokumentuak. Bertsio elektronikoak daudenean ez dira beharrezkoak izango originalak, baldin eta dokumentu horiek legezko baldintza aplikagarriak betetzen badituzte jatorrizkoen baliokide eta fidagarritzat hartuta auditoretzaren ondorioetarako.

– Neurria gauzaten amaituta, horretarako jasotako funtsen erabilerari buruzko justifikazio-kontu bat aurkezteko betebeharra, honako hauek barne hartuta:

- Mugarrien eta helburuen betetze-maila, hasieran finkatutakoekin edo, hala badagokio, berri-kusitakoekin alderatuta.

- Neurketaren benetako kostua, hasieran zenbatetsitako edo berrikusitako kostuaren aldean.
- Neurria eta inplementatzeko modua deskribatzea, baita gauzatzean aplikatutako kontrol-mekanismoak ere.

– Arloko Biltzarraren likidaziorako azken justifikazio-kontu bat aurkezteko betebeharra, bai erabilitako zenbatekoei dagokienez, bai lortutako mugarri eta helburuei dagokienez.

6.– Eusko Jaurlaritzaren Iruzuraren aurkako Neurrien Planari (2022ko martxoaren 29an onetsita) atxikitzea, edo, hala badagokio, antzeko edukia duen plan propio bat edukitzea, berari dagokion jarduera-eremuan funtsak aplikatu beharreko arauen arabera erabili direla bermatzeko eta deklaratzeko, bereziki iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkek prebenitzeari, hautemateari eta zuzentzeari dagokionez. Iruzuraren aurkako Neurrien Plan propioa edukiz gero, Eusko Jaurlaritzaren Legean xedatutakoa ere bete beharko du.

7.– Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA) aurkeztea, hitzarmen honen II. eranskinean jasotako ereduaren arabera. Betebehar hori honako hauei ezartzen zaie: kudeaketa-, kontrol- eta ordainketa-lanak egiten dituzten enplegatu publikoei eta eginkizun horietako batzuk eskuordetu zaizkien beste agente batzuei, bai eta onuradun pribatuei, bazkideei, kontratistei eta azpikontratistei ere, baldin eta haien jarduerak funtsekin finantzatzen badira eta beren interesen alde jardun badezakete, baina EBren finantza-interesen aurka, interes-gatazka baten esparruan.

8.– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduan aurreikusitako ingurumenari kalte nabarmenik ez egiteko printzipioa errespetatzea (do no significant harm - DNSH printzipioa). Erregelamendu horrek Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa eta aplikatzekoa den Europako gainerako araudia ezartzen ditu. Horretarako, DNSHaren autoebaluazioa egin beharko da, –Kalte nabarmenik ez egiteko printzipioaren autoebaluazioa (DNSH)–, hitzarmen honen III. eranskinean jasotako ereduaren arabera.

9.– Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean esleitutako etiketa berde eta digitalari buruzko baldintzak betetzea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduan, 2021eko otsailaren 12koaren, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzekoaren, VI. eta VII. eranskinari jarraikiz.

10.– Argitalpenetan, hedapen-jardueretan, web-orrietan eta, oro har, edozein hedabidetan proiektuari egiten zaion erreferentzia orok Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren Irudiarri buruzko Eskuliburuan edo Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak onartzen duen eskuliburuan agertzen diren baldintzak bete behar ditu. Aurrekoa alde batera utzi gabe, aipatu beharko da, nolana ere, jarduera Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren funtsen bidez finantzatu dela eta Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak kudeatu duela azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 18.4 artikuluan aurreikusitako moduan.

Era berean, finantzaketa horren jatorria aipatu beharko da, eta haren ikusgarritasuna bermatu, bereziki diruz lagun daitezkeen jarduerak eta horien emaitzak sustatzen direnean; horretarako, informazio koherente, eraginkor eta neurritzkoa emango zaie hartzaile askori, baita hedabideei eta publikoari ere. Era berean, eremu horretan egiten diren lizitazio, hitzarmen eta gainerako tresna juridiko guztiek, bai goiburuan, bai garapen-gorputzean, honako erreferentzia hau izan beharko dute: «Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana - Europar Batasunak Next Generation EU funtsen bidez finantzatua», irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 9. artikuluekin bat etorritik. Agindu horren bidez, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzten da.

11.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eskatutako beste edozein informazio eta dokumentazio bidaltzea.

Hirugarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren konpromisoak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren bitartez, Vitoria-Gasteizko udalerrian garraio-datu aurreratuak sortzeko jarduketan benetako kostua finantzatzeko eta ordaintzeko konpromisoa hartzen du, gehienez 31.866,25 euro, eta horretarako 1000831000 1.12281.72100 2022/001284 aurrekontu-aplikazioari beharrezko kreditua eman zaio hitzarmenak dakarren gehieneko kostu ekonomikoari aurre egiteko, urteko zenbatekoen banaketa honen arabera:

2022: 31.866,25 euro.

Laugarrena.– Diruz lagundu daitezkeen kostuak.

1.– Hitzarmen honen bigarren klausulan jasotako jardueri dagozkien inbertsioetan diruz lagundu daitezkeen kostuen % 100 finantzatuko dira, eta honako hauek hartuko dira halakotzat:

- a) Kanpo-kontratazioak, ingeniari-tza, jarraipen eta obra zibilekoak.
- b) Diruz lagundu daitezkeen jarduketekin lotutako ekipamenduak erosteko kontratuak, ekipamendu teknologikoak eta informatikoak barne.
- c) Software espezializatuko lizentziak erostea, baldin eta jarduketarako baino ez badira, eta eskuratutako ekipamendua behar bezala erabiltzeko aukera ematen badute.
- d) Aholkularitzako kanpo-kontratazioak, diruz lagundutako jarduketari lotuta egiten badira. Bideragarritasunaren eta xehetasun-ingeniari-tzari buruzko azterketak diruz lagundu ahalko dira, betiere beharrezkoak badira jarduketa egiteko. Hautagarritasun-data baino lehen egingdakoak izan ahalko dira, baina, kasu horretan, kostua ez da hautagarria izango.
- e) Kanpo-kontratazioak lege-aholkularitza, notariotza, aholkularitza tekniko edo finantzario, kontabilitate edo auditoretzako lanetarako, proiektuari zuzenean lotuta badaude eta beharrezkoak badira proiektua prestatu edo garatzeko, betiere aurrekontuan aurreikusi badira.

2.– Hala ere, ez dira diruz lagunduko honako kontzeptu hauetan sartzen direnak:

- a) Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
- b) Administrazio-baimenak, lizentziak, baimenak, abalen eta/edo fidantzen kostua, isunak, tasak, zergak edo tributukoak.
- c) Administrazio-ko izapideei, kontsultei, kontratazioei edota kudeaketei lotutako edozein gastu, baimenak edo lizentziak lortzeko beharrezkoak izan arren.
- d) Eskatzaileak sinatutako aseguruak.
- e) Edozein kostu finantzario.
- f) Zehapen penalei lotutako kostuak, baita prozedura judizialeko gastuak ere.
- g) Sistema eragile eta aplikazio ofimatikoetarako lizentziak.
- h) Administrazioaren jarduketan eragiketa- eta mantentze-gastuak edo gastu propioak.

Bosgarrena.– Lanak finantzatu eta ordaintzea.

1.– Ekarpenaren zenbatekoa Tuvisa sozietateak honako honetarako erabili ahal izango du soilik: Vitoria-Gasteizko udalerrian garraio-datu aurreratuak sortzeko jarduerak egiteak dakartzan kostuak finantzatzeko.

2.– Hitzarmen hau formalizatu ondoren ordainduko da zenbatekoa.

Egindako gastuaren bilakaera eta mugarrak eta helburuak bete direla egiaztatu ahal izateko, hitzarmen honen bigarren klausulan adierazten diren justifikazio-txostenak erantsiko dira.

Dirulaguntzaren zenbatekoa banku-transferentzia bidez ordainduko da.

3.– Erakunde onuradunak bete egin beharko du estatuko dirulaguntzen araubidearekin bate-ragarri izateari buruzko estatuko eta Europako araudia, eta finantzaketa bikoitza saihesteari buruzkoa, bat etorritz irailaren 29ko HFP 1030/2021 Aginduko 7. artikuluan aurreikusitakoarekin.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 9. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz (haren bidez Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen da), mekanismoaren esparruan emandako laguntza Batasunaren beste programa edo tresna batzuekin bat etorritz emandako beste laguntza batzuei gehituko zaie. Inbertsioaren proiektuek eta erreformek Batasunaren beste programa eta tresna batzuen laguntza jaso ahalko dute, betiere laguntza horrek kostua bera estaltzen ez badu.

Seigarrena.– Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren esparruan ezarritako xedapenak betetzea.

1.– Hitzarmen hau sinatzen duten erakundeek Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa arau-tzen duen araudi osoa bete beharko dute.

2.– Hitzarmen honek eta bere betearazpenak bete egin beharko dituzte Garraioen Konferentzia Nazionalaren 2021eko azaroaren 5eko erabakiaren baldintzak. Erabaki hori Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko 1. osagaiaren «Hiri- eta metropoli-inguruneetako mugikortasun jasanga-rra, seguru eta konektaturako talka-plana» eta 6. osagaiaren «Mugikortasun jasangarria, seguru eta konektatua» esparruko inbertsio-jarduketak finantzatzeko aurrekontu-kredituen lurralde-bana-ketaren irizpideei buruzkoa da.

3.– Kontratazio-organoek, hitzarmen honetatik eratorritako lizitazio-prozeduren esparruan, Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen 2021eko abenduaren 23ko Jarraibidean ezarritako xedapenak aplikatuko dituzte. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planetik datozen funtsekin finantzatzeko diren kontratuen espedienteetan eta baldintza-agirietan sartu beharreko alderdiei buruzkoak dira horiek.

4.– Erakunde onuraduna proiektura bideratutako funtsen aplikazioa kontrolatzeko eta jarraipena egiteko jarduketan mende jarriko da, dokumentuak egiaztatuz, bai eta Lurralde Plangintza, Etxebi-zitza eta Garraio Saila Sailaren etengabeko eta amaierako ebaluazioaren mende ere; horrez gain Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren funtsak kontrolatzea esleituta duten estatuko eta Europako organoen kontrolaren mende geldituko dira, eta bereziki, honako hauena: Europako Batzordea, Europako Kontuen Auzi-tegia, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoa eta Europako Fiskaltza. Horiek guztiek egindako jarduketan informazio xeheari buruzko informazioa eskuratu ahal izango dute.

Zazpigarrena.– Jarraipena eta informazioa ematea Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren esparruan.

1.– Jarduketak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planerako ezarritako jarraipen eta kontrola-ren mende egongo dira, eta barneko araudian eta Europar Batasunekoan Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoarako informazio eta publizitateari, kontrolari, egiaztapenari, jarraipenari eta gainerakoari buruz ezarritako betebeharrak espezifikoki izango dituzte, eta nahitaez bete beharko dira.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzen duen erakundea den aldetik, hitzarmen honetan zehaztutako jarduketan gastuak agintari eskudunen aurrean ziurtatu edo egiaztatu ahal izateko, Tuvisa sozietateak eskatzen dizkieten informazio eta agiri guztiak bidali beharko ditu, bai eta aplikatu beharreko edozein arau edo araudik xedatzen duena behar denean bete ere.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak zainduko du esleitutako proiektuak eskatutako baldintzen arabera gauzatzen direla. Horretarako, Tuvisa sozietateak beharrezko dokumentazioa eta informazioa eskatuko die esleipendunei, proiektuen gauzatzearen jarraipen egokia egiteko; pleguetan jaso beharko da hori.

Zortzigarrena.– Jarduketan jarraipena egiteko batzordea.

1.– Hitzarmen honen jarraipenerako batzorde bat eratuko da. Batzorde hori lau ordezkari osatuko dute: bi, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailekoak eta, beste bi, Tuvisa sozietatekoak. Hitzarmena sinatzen duten aldeek izendatuko dituzte ordezkari horiek, hurrenez hurren, eta honako eginkizun hauek izango dituzte:

- a) Jarraipena egitea hitzarmen honetan aurreikusitako jarduerak zuzen betetzen diren, eta irizpideak eta bitartekoak ezartzea alderdiek elkarri informazioa eman diezaioten eta dagozkien konpromisoak egoki bete ditzaten.
- b) Egin behar diren izapideak bizkor egiteko erraztasunak ematea.
- c) Hitzarmen honetako jarduerak betetzeko beharrezkoak diren neurriak jakinaraztea eta proposatzea.
- d) Hitzarmenak sor ditzakeen interpretazio- eta gauzatze-arazoak konpontzen saiatzea.

2.– Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, lanak behar bezala egiteko behar den bakoitzean elkartuko da batzordea, aldeetako batek nahiz besteak eskatuta. Erabakiak parte-hartzaileen gehiengoarekin hartuko dira, eta behintzat alde bakoitzeko ordezkarien ehuneko berrogeita hamarra egon beharko da bertan.

3.– Hitzarmen honetan Jarraipen Batzordearentzat espresuki jasotzen ez diren gaietan, 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, Atariko Tituluaren II. kapituluaren hirugarren atalean arautzen duen kide anitzeko organoen araubidea aplikatuko da.

Bederatzigarrena.– Hitzarmenaren araubidea eta interpretazioa.

1.– Hitzarmen hau administratiboa da. Interpretatzeko eta garatzeko, hitzarmenei aplikatzen zaien ordenamendu juridikoan xedatutakora joko da.

2.– Hitzarmen honek edo hitzarmenaren betearazpenak sorraraz ditzakeen interpretazio-arazoak Jarraipen Batzordeak ebatziko ditu, aurreko klausulan esandakoari jarraituz. Horrela ezin badira ebatzi, administrazioarekiko auzien jurisdikzioko epaitegi eta auzitegietan ebatziko dira, hamabigarren klausulan xedatutakoaren arabera.

Hamargarrena.– Iraupena eta azkentzea.

1.– Sinatzen den egunean jarriko da indarrean hitzarmen hau, eta 24 hilabeteko iraupena izango du, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49. artikuluan 1.h) apartatuan ezarritakoaren arabera.

2.– Aurreko apartatuan aipatutako epea amaitu aurretiko edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez adostu ahalko dute hura luzatzea, beste lau urteko aldi baterako gehienez, edo hura azkentzea.

3.– Hitzarmena azkenduko da xede diren jarduerak gauzatzen direnean, edo Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51 artikuluko 2. apartatuan xedatzen diren indargabetzeko kausetatik bat betetzen bada.

4.– Aldeetako batek hartutako konpromisoak bete ezean, hitzarmena indargabetzea eskatzeko eskubidea izango du besteak.

Hamaikagarrena.– Itzulketa eta erantzukizuna.

1.– TUVISA sozietateak hitzarmen honetako betebeharrak betetzen ez baditu, eta, bereziki, diruz lagun daitezkeen gastuak egiaztatzen ez baditu, zuzendu ezean, jasotako zenbateko guztiak itzultzeko prozedurari hasiera eman ahal izango zaio, eta dirulaguntza ordaindu zenetik dagokion berandutze-interesa eskatu ahal izango da, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikuluan eta dirulaguntzetan bete beharrekoen gaineko kontrola arautzen duten gainerako arauetan ezarritakoarekin bat etorritz.

2.– Autonomia-erkidegoko, estatuko agintaritzaren edo Erkidegoko erakundeen kontrol-jarduerak garatzean egiaztatzen bada Tuvisa sozietatearen ez-betetzereen bat, eta horrek funtsen itzulera murriztea badakar, erantzukizun hori Tuvisa sozietateari helaraziko zaio, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 7. artikuluan adierazitakoa aplikatuz.

Hamabigarrena.– Hitzarmena aldatzea.

Hitzarmen hau aldatu ahal izango da, hitzarmena sinatu duten erakundeek aho batez hala erabakitzen badute. Horretarako, dagokion aldaketa-dokumentua izapidetu eta sinatu beharko da.

Hamahirugarrena.– Araubide juridikoa.

1.– Hitzarmen honi indarrean dagoen ordenamendu juridikoan ezarritako xedapenak aplikatuko zaizkio, bereziki Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean jasotako xedapenak.

2.– Horrez gain, kontuan hartu beharko du Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren araudi erregulatzailan xedatzen dena, eta, bereziki, honako hauek: Garraioen Konferentzia Nazionalaren azaroaren 5eko erabakia, zeinaren bidez 2021eko eta 2022ko ekitaldietako aurrekontu-kredituen lurralde-banaketarako irizpideak ezartzen baitira, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 1. eta 6. osagaien esparruan inbertsio-jarduketak finantzatzeko; abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretua, zeinaren bidez presako neurriak onartzen baitira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamendua, zeinaren bidez Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen den; HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko erakundeek informazioa emateko prozedura eta formatua ezartzen dituen, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren osagaietako neurrien mugarrien eta helburuen betetze-mailaren eta neurrien aurrekontu- eta kontabilitate-betearazpenaren jarraipena egiteko; 11/2021 Legea, abenduaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2022. urteko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra onestekoa (II. titulua, V. kapitulua, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako funtsen kudeaketa), eta Gobernu Kontseiluaren otsailaren 8ko Erabakia, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako jardueren eta proiektuen aurrekontu- eta kontabilitate-betearazteari, kudeaketari eta jarraipenari dagokienez.

3.– Hitzarmena garatu eta betearazi bitartean aldeen artean auzirik sortuz gero, zortzigarren klausulan ezarritako Jarraipen Batzordeak horiek ezin baditu ebatzi, administrazioarekiko auzietarako jurisdikziora joko da, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzeko uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatu denarekin bat.

Eta adierazitakoaren ados daudela adierazteko, ordezkariak hitzarmenaren bi kopia sinatu dituzte goiburuan aipatutako tokian eta egunean.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburua,

IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

Tuvisa –Gasteizko Hiri Garraioa SA– sozietateko presidentea,
RAIMUNDO RUIZ DE ESCUDERO EZCURRA.

I. ERANSKINA

Garraio-datu aurreratuak sortzea/Generación de datos de transporte

GTFS estatiakoak/ GTFS estáticos	agency.txt	stops.txt	calendar.txt	calendar_dates.txt	fare_attributes.txt	fare_rules.txt	shapes.txt	frequencies.txt	trips.txt
1: Derrigorrezko/Obligatorio	agency_id agency_name agency_url agency_timezone agency_lang agency_phone agency_fare_url agency_email stop_id stop_code stop_name stop_desc stop_lat stop_lon stop_on_board wheelchair_board level_id platform_code	stop_id stop_lon stop_lat stop_name stop_desc stop_lat stop_lon zone_id stop_url location_type parent_station stop_timezone wheelchair_board level_id platform_code	calendar_id service_id start_date end_date weekdays sunday	calendar_id service_id exception_type date	fare_id fare_name route_id route_desc route_type route_url route_color route_text_color route_sort_order continuous_pickup continuous_drop_off	route_id route_desc route_type route_url route_color route_text_color route_sort_order continuous_pickup continuous_drop_off	route_id route_desc route_type route_url route_color route_text_color route_sort_order continuous_pickup continuous_drop_off	route_id route_desc route_type route_url route_color route_text_color route_sort_order continuous_pickup continuous_drop_off	route_id route_desc route_type route_url route_color route_text_color route_sort_order continuous_pickup continuous_drop_off
GTFS estatiakoak/ GTFS estáticos	stop_times.txt	calendar.txt	calendar_dates.txt	fare_attributes.txt	fare_rules.txt	shapes.txt	frequencies.txt		
1: Derrigorrezko/Obligatorio	trip_id arrival_time departure_time stop_id stop_sequence stop_headsign pickup_type drop_off_type continuous_pickup continuous_drop_off timepoint shape_dist_traveled shape_dist_traveled	calendar_id service_id start_date end_date weekdays sunday	calendar_id service_id exception_type date	fare_id fare_name route_id route_desc route_type route_url route_color route_text_color route_sort_order continuous_pickup continuous_drop_off	route_id route_desc route_type route_url route_color route_text_color route_sort_order continuous_pickup continuous_drop_off	route_id route_desc route_type route_url route_color route_text_color route_sort_order continuous_pickup continuous_drop_off	route_id route_desc route_type route_url route_color route_text_color route_sort_order continuous_pickup continuous_drop_off		
GTFS estatiakoak/ GTFS estáticos	transfers.txt	pathways.txt	levels.txt	feed_info.txt	translations	attributions			
1: Derrigorrezko/Obligatorio	trip_id from_stop_id to_stop_id transfer_type min_transfer_time pathway_id from_stop_id to_stop_id pathway_mode is_bidirectional length traversal_time stair_count max_slope min_width signed_as reversed_signed_as level_id level_index level_name feed_publisher_name feed_publisher_url feed_lang feed_start_date feed_end_date feed_version feed_contact_email feed_contact_url table_name field_name language translation record_id record_sub_id field_value attribution_id agency_id route_id trip_id organization_name is_producer is_operator is_authority attribution_url attribution_email attribution_phone	trip_id from_stop_id to_stop_id transfer_type min_transfer_time pathway_id from_stop_id to_stop_id pathway_mode is_bidirectional length traversal_time stair_count max_slope min_width signed_as reversed_signed_as level_id level_index level_name feed_publisher_name feed_publisher_url feed_lang feed_start_date feed_end_date feed_version feed_contact_email feed_contact_url table_name field_name language translation record_id record_sub_id field_value attribution_id agency_id route_id trip_id organization_name is_producer is_operator is_authority attribution_url attribution_email attribution_phone	trip_id from_stop_id to_stop_id transfer_type min_transfer_time pathway_id from_stop_id to_stop_id pathway_mode is_bidirectional length traversal_time stair_count max_slope min_width signed_as reversed_signed_as level_id level_index level_name feed_publisher_name feed_publisher_url feed_lang feed_start_date feed_end_date feed_version feed_contact_email feed_contact_url table_name field_name language translation record_id record_sub_id field_value attribution_id agency_id route_id trip_id organization_name is_producer is_operator is_authority attribution_url attribution_email attribution_phone	trip_id from_stop_id to_stop_id transfer_type min_transfer_time pathway_id from_stop_id to_stop_id pathway_mode is_bidirectional length traversal_time stair_count max_slope min_width signed_as reversed_signed_as level_id level_index level_name feed_publisher_name feed_publisher_url feed_lang feed_start_date feed_end_date feed_version feed_contact_email feed_contact_url table_name field_name language translation record_id record_sub_id field_value attribution_id agency_id route_id trip_id organization_name is_producer is_operator is_authority attribution_url attribution_email attribution_phone	trip_id from_stop_id to_stop_id transfer_type min_transfer_time pathway_id from_stop_id to_stop_id pathway_mode is_bidirectional length traversal_time stair_count max_slope min_width signed_as reversed_signed_as level_id level_index level_name feed_publisher_name feed_publisher_url feed_lang feed_start_date feed_end_date feed_version feed_contact_email feed_contact_url table_name field_name language translation record_id record_sub_id field_value attribution_id agency_id route_id trip_id organization_name is_producer is_operator is_authority attribution_url attribution_email attribution_phone	trip_id from_stop_id to_stop_id transfer_type min_transfer_time pathway_id from_stop_id to_stop_id pathway_mode is_bidirectional length traversal_time stair_count max_slope min_width signed_as reversed_signed_as level_id level_index level_name feed_publisher_name feed_publisher_url feed_lang feed_start_date feed_end_date feed_version feed_contact_email feed_contact_url table_name field_name language translation record_id record_sub_id field_value attribution_id agency_id route_id trip_id organization_name is_producer is_operator is_authority attribution_url attribution_email attribution_phone			
GTFS-RT	trip_update	vehicle	alert						
1: Derrigorrezko/Obligatorio	trip_id vehicle stop_sequence time arrival time departure stop_id schedule_relation stop_time_update	trip_id vehicle stop_sequence time arrival time departure stop_id schedule_relation stop_time_update	trip_id vehicle stop_sequence time arrival time departure stop_id schedule_relation stop_time_update						

II. ERANSKINA

Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA)

Kontratuaren edo deialdiaren izena:

.....

Espedientearen erreferentzia.....

(*Aitortzailearen identitatea*)
 nire zerbitzuak ematen ditut..... n (*Erakunde deitzailea*),
 gisa.

AITORTZEN DUT:

Lehenengoa.– Ezagutzen ditut honako hauek:

1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren (EBren finantza-erregelamendua) 61.3 artikulua («interes-gatazka») ezartzen du «interes-gatazka egongo dela funtzioen jardun inpartzial eta objektiboa arriskuan jartzen denean familia-arrazoiengatik, arrazoi afektiboengatik, kidesun politiko edo nazionalagatik, interes ekonomikoagatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako edozein arrazoiengatik».
2. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 64. artikulua («Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa») helburua da lehiaren distorsio oro saihestea, prozedura gardena dela eta hautagai eta lizitatuak guztientzat tratua berdina dela bermatzeko.
3. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua («Abstenitzea») ezartzen du prozeduran esku hartetik abstenituko direla «administrazioetako agintari edo langileak, hurrengo zenbakian aipaturiko egoeretakoren batean daudenean», zehazki, egoera hauetako batean:
 - a. Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo gai horretako ebazpenak eragin diezaiokeen beste batean; baltzu edo erakunde interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.
 - b. Ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, laugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo bigarren gradurainoko ezkontza-ahaidetasunezkoa, interesdunetako edozeinekin, entitate edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, bai eta prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin ere, edo haien bulego berekoa izatea edo haiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkaritza edo mandataritzarako.
 - c. Aurreko letran aipaturiko pertsonetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.
 - d. Dagokion prozeduran aditu edo lekuko gisa parte hartua izatea.

- e. Gaian zuzeneko interesa duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri, azken bi urteetan, zerbitzu profesionalak eskaini izana, edozein motatakoak eta edozein baldintza eta tokitan.

Bigarrena.– Ez nago EBren Finantza Erregelamenduaren 61.3 artikuluan interes-gatazkatzat sailkatzen diren egoeretako ezeinetan, eta ez nago, ezta ere, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluan ezartzen diren eta lizitazio-prozeduran eragina izateko arriskua dakarten abstenitzeko arrazoietako ezeinen mende.

Hirugarrena.– Konpromisoa hartzen dut kontratazio-organoari jakinarazteko, luzamendurik gabe, egoera hori sortzen duen edo sor dezakeen edozein interes-gatazka edo abstenitzeko arrazoi.

Laugarrena.– Konfidentziasunez tratatuko ditut prozedura horien esparruan garatzen diren gaiak eta dokumentazioa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 133. artikuluan ezarritako betebeharren esparruan.

Bosgarrena.– Badakit interes-gatazkarik ez dagoela dioen adierazpen bat faltsua dela frogatzen bada, aplikatzekoa den araudiak ezartzen dituen ondorio administratiboei eta judizialei aurre egin beharko diedala.

(Data eta sinadura, izen osoa eta NAN)

III. ERANSKINA

Kalte esanguratsurik ez eragiteko printzipioaren autoebaluazioa - DNSH

- **JARDUKETA/ERAGIKETA:**
- **ORGANO KUDEATZAILEA:**
- **DATA:**

JARDUKETAREN/ERAGIKETAREN DESKRIBAPENA:**KALTE ESANGURATSURIK EZ ERAGITEKO PRINTZIPIOAREN AUTOEBALUAZIO-ZERRENDA**

1. zatia: Kudeaketa Organoak sei ingurumen-helburuak iragazi behar ditu, ebaluazio substantiboa behar dutenak identifikatzeko. Adierazi, neurrirako/proiekturako/azpiproiekturako, ondoko ingurumen-helburuetatik, Taxonomiako Erregelamenduaren 17. artikulua definizioaren arabera («Ingurumen-helburuei kalte esanguratsua»), zeinek behar duten ebaluazio substantiboa, neurriaren/proiektuaren/azpiproiektuaren «DNSH printzipioaren» arabera:

Adierazi ingurumen-helburu hauetako zeinek eskatzen duten ebaluazio substantiboa, neurriaren «DNSH printzipioaren» arabera	Bai	Ez	«Ez» aukeratu baduzu, azaldu zergatik
Klima-aldaketa arintzea (1)			
Klima-aldaketara egokitzea (2)			
Ur-baliabideen eta itsas baliabideen erabilera eta babes jasangarria (3)			
Ekonomia zirkularra, hondakinen prebentzioa eta birziklapena barne (4)			
Atmosferaren, uraren edo lurzorua kutsadura prebenitzea eta kontrolatzea (5)			
Biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta leheneratzea (6)			
<p>⁽¹⁾(1) Jarduera batek kalte nabarmena eragiten dio klima-aldaketa arintzeari, berotegi-efektuko gas (BEG) ugari isurtzen baditu.</p> <p>⁽²⁾(2) Jarduera batek kalte esanguratsua eragiten dio klima-aldaketara egokitzeari, baldin eta egungo eta etorkizuneko klima-baldintzek pertsonengan, naturan edo aktiboengan dituzten ondorio kaltegarriak areagotzen baditu.</p> <p>⁽³⁾(3) Jarduera batek kalte esanguratsua eragiten dio ur-baliabideen eta itsas baliabideen erabilera eta babes jasangarriari, kalte egiten badio ur-masen egoera onari edo potentzial ekologiko onari (lurrazalekoak eta lurpekoak barne) eta itsas uren egoera ekologiko onari.</p> <p>⁽⁴⁾Jarduera batek ekonomia zirkularrean kalte nabarmena eragiten duela jotzen da, hondakinen prebentzioa eta birziklatzea barne, baldin eta materialen erabileran edo baliabide naturalen zuzeneko edo zeharkako erabileran eraginkortasun falta handiak sortzen baditu; hondakinen sorrera, errausketa edo deuseztatzea nabarmen areagotzen badu; edo hondakinak epe luzera ezabatzeak ingurumenari kalte esanguratsua eta epe luzera eragin badietzaike.</p> <p>⁽⁵⁾Jarduera batek kalte esanguratsua eragiten dio kutsaduraren prebentzioari eta kontrolari, atmosferara, uretara edo lurzorura isurtzen diren kutsatzaileen kopurua nabarmen handitzen denean.</p> <p>⁽⁶⁾Jarduera batek kalte esanguratsua eragiten dio biodibertsitatearen eta ekosistemen babesari eta leheneratzeari, neurri handi batean ekosistemen baldintza onen eta erresilientziaren kalterako denean, edo habitaten eta espezieen kontserbazio-egoeraren kalterako denean, bereziki Batasunarentzat interesgarriak direnena.</p>			

2. zatia: Kudeaketa Organoak ebaluazio substantiboa egin behar du, hala eskatzen duten ingurumen-helburuen «DNSH printzipioaren» arabera. Neurri/proiektu/azpiproiektu bakoitzerako, erantzun galdera hauei, 1. zatian ebaluazio substantiboa behar dutela adierazi zenuen ingurumen-helburuetarako:

Galderak	Ez	Funtsezko justifikazioa
<i>Klima-aldaketa arintzea: Espero al da neurriak berotegi-efektuko gas asko isurtzea?</i>		
<i>Klima-aldaketara egokitzea: Espero al da neurriak egungo eta etorkizuneko klima-baldintzek pertsonengan, naturan edo aktiboengan dituzten ondorio kaltegarriak areagotzea?</i>		
Ur-baliabideen eta itsas baliabideen erabilera eta babes jasangarria: Espero al da neurria kaltegarria izatea: (ii) ur-masen egoera ona edo potentzial ekologiko ona, azalekoak eta lurpekoak barne; edo (ii) itsas uren ingurumen-egoera onerako?		
Ekonomia zirkularrerako trantsizioa, hondakinen prebentzioa eta birziklatzea barne: Espero al da neurriak (i) hondakinen sorrera, errausketa edo deuseztapena nabarmen handitzea, birziklagarriak ez diren hondakin arriskutsuen errausketa izan ezik; edo (ii) eraginkortasunik eza handiak eragiten baditu baliabide naturalak zuzenean edo zeharka erabiltzeko orduan, haien bizi-zikloaren edozein fasetan, eta neurri egokiekin minimizatzen ez badira; edo (iii) ingurumenari, ekonomia zirkularrari dagokionez, epe luzera kalte esanguratsua eragiten badio?		
<i>Kutsaduraren prebentzioa eta kontrola: Espero al da neurriak atmosferara, uretara edo lurzorura isurtzen diren kutsatzaileen kopurua nabarmen handitzea?</i>		
Biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta leheneratzea: Espero al da neurriak (i) neurri handi batean ekosistemen baldintza onen eta erresilientziaren kalterako izatea; edo (ii) habitaten eta espezieen kontserbazio-egoeraren kalterako bada?		